Udalerria eta hizkuntz politika Katalunian

Banatu ezinak eta batu beharrekoak

Artikulu honen bidez, Euskal Herrian euskararen normalizazio-prozesua bideratzeko udal-mailako hizkuntz politika koordinatu, planifikatu eta sistematizatu baten ezinbestekotasuna argitu nahi nuke. Lehen ere nahikoa argitua dagoela deritzot, baina BAT aldizkariaren bilgune hau eta legealdi berriaren abagadunea eritziek 'argia hartzeko' lagungarri badira, balekoa izango da.

Esan beharra dut, artikulu honetan idatzitakoa sortzelana ez beste edozer dela; gaiari buruz idatzia dagoena bildu eta ordenatu besterik ez dudala egin alegia.

«Hizkuntz Normalizazio prozesuan parte hartu behar duten agenteak herri-erakundeak eta herritarrak beraiek dira»

Bestalde, maiz aipatu izan da Hizkuntz Normalizazio (H.N.) prozesuan parte hartu behar duten agenteak herri-erakundeak (administrazio publikoa) eta herritarrak beraiek direla. Gaurko honetan administrazioak oro har eta udalek zehazki duten erantzukizunaz ihardungo dugu soilik.

Administrazioaren barnean kokatuta egonik, defendatzen dudan ideia honako hau da: hizkuntza minorizatua duen herri batean H.N. prozesua bideratu nahi bada (beraz, hizkuntz politika jakin bat eta hizkuntz plangintza jakin bat eginez), udal-mailako hizkuntz politika eta hizkuntz plangintza oinarrizko elementuak direla (sektoreka —komunikabideak, hezkuntza...— egin behar direnen osagarri).

Azken batean, esan nahi dudana zera da: H.N. bideratzeko unitate naturala udalerria dela. Honen azalpen franko eman dago jadanik, eta agian ez du argibide gehiagorik eskatzen, baina badaezpada ere hemen argudio batzuk bilduko ditugu:

- Gaur egungo Euskal Herriko gizartearen lurralde-egituraketaren unitatea da, gizarte-bizitzaren unitatea.

- «Es el medi geográfic i social, i també l'aparell institucional, més próxim al ciutadá»[1].

- «Es un ámbit privilegiat quant al conoixement de la realitat sociolingüística»[1].

- «Permet l'elaboració d'estudis i de dissenys fácilment controlables des del punt de vista de la planificació»[1].

- «Euskal Herrian diharduten aukera politiko guztiak biltzen dira udaletan (arrazoi desberdinengatik bada ere, ez Iparraldeko, ez Hegoaldeko beste erakundeetan gertatzen ez dena)»[2].

«Hizkuntz normalizazioa bideratzeko unitate naturala udalerria da»

- «Herritarren partaidetza sustatzeko eta udalerri-mailan euskararen normalizazioaren aldeko gizarte-kontzientzia lantzeko eta mugimendu sozialekin elkarlana antolatzeko aukera hurbila»[2].

- Administrazio Orokorrak planteaturiko H.N. garatzeko

oinarrizko elementua, sektore edo iharduera-esparru guztiak biltzen bait dira herrian: lagunartea, familia, eskola, lan-mundua, administrazioa, gizarte-zerbitzuak, aisialdia...

- «Udalek, goiko erakundeetatik datozkien araubideak eta erizpideak jarraitu behar izaten dituzte, eta bestetik, herritarren eta bertako erakunde, elkarte edo talde desberdinekin daude harremanetan, beren asmoak eta eragina jasoz. Bi indar horiek berebiziko garrantzia dute udal-mailako H.N.an.»[2].

Ez daude arrazoi guztiak hemen bilduak, baina esandakoa babesteko adinakoa den ustetan, horrelaxe utziko dugu.

Kataluniako eredua

Hasteko, beti esan ohi denez, edozein bi herrik dituzten hizkuntz egoera, normalizazio-prozesua eta abar, desberdinak eta zuzenean kopiatu ezinak direla errepikatu behar dugu.

«Edozein bi herrik dituzten hizkuntz egoera, normalizazio-prozesua eta abar, desberdinak eta zuzenean kopiatu ezinak direla errepikatu behar dugu»

1978 inguruan, euskararen eta katalanaren egoerak nahiko desberdinak ziren (hiztun-kopurua, hizkuntz atxekimendua, kodeen arteko distantzia, hizkuntzen funtzio instrumentalen egoera, herritarren nortasun kolektiboa, hizkuntz komunitatearen pisu politikoa...), baina administrazioak emandako urrats orokorrak nahiko berdinak izan dira Katalunian eta Euskal Herriko Elkarte Autonomoan (Estatutua, Normalizazio-Legea, Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Orokorraren sorrera...). Hala ere, gero ikusiko dugunez, udal-mailako hizkuntz politikan desberdintasun garrantzitsuak daude.

H.N., Kataluniako alderdi politikoetan Euskal Herrikoetan baino garrantzia handiagokoa eta lehentasunezko tratamendua nabariago ikusten den gaia da. Horrek ondorioztatu du, besteren artean, laburbildu dugun Kataluniako Generalitatearen H.N.rako egituraren eraketa (ikus artikuluaren amaierako koadroa).

Bi elkarte autonomoetako Normalizazio-Legeak

berdintsuak izanik ere, Kataluniako Normalizazio-Legeak baditu aipamen zehatz batzuk Udal-Administrazioaren erantzukizunari buruz, e.b., katalanaren Udal-Ordenantzak arautzeko konpetentzia zehazki xedatzen du (7.3. artikulua).

Lege aldetiko diferentzia hauek badaude ere, udalmailako H.N.k bi elkarteetan izandako garapen desberdina ezin diezaiokegu arrazoi honi atxeki.

Behin 1980. urtean Hizkuntz politikarako Zuzendaritza Nagusia eratu ondoren:

«Una de les tasques (eginkizunak) prioritaries que es fixa la Direcció General de Política Lingüística en 1.981 és l'establiment de contactes amb les Corporacions locals perqué es pugui actuar des del coneixement directe de cada situació, administrativa i sociolingüística, i s'aprofitin (aprobetxatu) totes les iniciatives locals. A partir de les primeres campanyes de sensibilització lingüística, apareix la possibilitat d'implicar els ajuntaments mateix. Aixi neixen els primers Serveis Municipals de Catalá»[2].

Jadanik herri gehienetan badira Servei Municipals de Catalá (S.M.C.) izenekoak, guztira 81 S.M.C. daude eta horretaz gain, normalean eskualderik jendetsuenetan (Hospitalet de Llobregat, Santa Coloma de Gramanet, Girona eta Val d'Aran) Centres de Normalització Lingüística (C.N.L.) deritzen unitateak dituzte. Era berean, herrialde bakoitzean Serveis Territorials (S.T.) izeneko herrialdeko zerbitzuak daude. Guztiak ere Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren H.N. Zerbitzuarekin koordinatuak.

Udalek garatutako ihardun honek, H.N.rako ihardueak bildu, sistematizatu, arautu eta Katalunia osoan zehar modu koordinatu batez aplikatuko dituen Zuzendaritza bakar baten beharra ekarri du, Generalitate eta Udalen artean kontsentsuaturiko hizkuntz politika bat.

Honela 1988ko abenduaren 15ean, Generalitatearen eta 20 Udalen artean «Consorci per a la Normalització Lingüística» eratu zen. Gaur egun Consorci honetan dauden 34 Udalak Kataluniako handienak dira eta

biztanlegoaren %80 inguru biltzen dute. Hala ere, epeka-epeka, udal guztiak bertan txertatzea da helburua. Consorci-aren finantzaketa, Generalitateak %65 eta Udalek %35 jarriz egiten da.

Consorci per a la Normalització Lingüística

Consorci-ak honela definitzen du bere burua indarrean duen araudian:

article 1.— «El Consorci per a la Normalització Lingüística es, de conformitat amb alló que estableixen les lleis, els reglaments, la normativa vigent i els propis Estatuts dels Consorci, un ens de caracter pública amb personalitat juridica propia i plena capacitat d'obrar per a l'acompliment de les seves finalitats».

article 2.— «L'objecte del Consorci és la integració de la Generalitat, de les administracions publiques de caracter local i d'altres entitats privades sense afany de lucre, que tenen per finalitat assolir la normalització lingüística mitjancant el foment, el conoiexement i l'us de la llengua».

Consorci-ak erabakitzen duen hizkuntz politika garatzeko aipatu C.N.L.ak eta S.M.C.ak ditu:

article 17.— «Els CNL son unitats de programació, direcció, execució i gestió de les activitats de normalització lingüística en els ambits municipals, supramunicipals, comarcals o supracomarcals, per mitjá dels quals el Consorci per a la N.L. presta els sens serveis de manera desconcentrada. Amb l'assessorament i la coordinació técnica de la Direcció General de Política Lingüística, posem a disposició de les corporacions locals, d'altres entitas i materials per dur a terme amb eficácia en el seu territori els programes anuals de N.L. aprovats pel Ple del Consorci.»

«Udalek garatutako ihardun honek, Hizkuntz Normalizaziorako iharduerak bildu, sistematizatu, arautu eta Katalunia osoan zehar modu koordinatu batez aplikatuko dituen Zuzendaritza bakar baten beharra ekarri du»

Hizkuntz zerbitzu hauen barne-eraketa berriz hiru arlotan dago banatua:

a) Correcció i assessorament lingüística: Euskal

Herrian ditugun Euskara Zerbitzuetako itzultzaileen antzeko funtzioekin, zuzenketari itzulpengintzari baino garrantzi handiagoa ematen dien arren (egoerak ere hala eskatzen du eta).

b) Ensenyament: Euskal Herrian ditugun helduen euskalduntze-alfabetatzean diharduten euskaltegien antzeko zeregina dute, baina hauek Hizkuntz Zerbitzuaren barnean daudenez, sarri antolatzen dira programa sektorialetarako ikastaroak (azken puntu honen gabezia askotan nabaritu dugu Euskara-Zerbitzuetan gabiltzanok kanpaina askok eskatzen duten ikastaro sektorialen antolaketa eskuraezina suertatu izan bait zaigu —famili transmisioa, merkataritza, kirol-begiraleentzako ikastaroak...—).

c) Dinamització: Katalanaren erabilera bai esparru publiko eta bai pribatuetan sustatzea du helburu. Horretarako, egoeraren analisiak burutu, iharduerak planifikatu, diseinatu eta egikaritu, eskuhartzen duten agenteak koordinatu eta beharrezko euskarriak prestatzen dituztenik. Euskal Herrian ongi eraturik dauden Euskara-Zerbitzuetan egiten denaren antzera.

Koordinazio-mailan, berriz, C.N.L. eta S.M.C. bakoitzak urteko hizkuntz normalizazio-plangintza onartu eta Consorci-ari igorri behar dio, honek urteko iharduera-planak osatuko dituelarik proposamen horiek kontutan izanik.

1991rako onartzear zegoen Plan-Proposamena ere eskuartean izan dut eta hona hemen laburpentxo bat, ea zer deritzozuen:

Lehenengo puntu batean H.N. prozesuaren helburu orokorrak azaltzen ditu, helburu horiek zenbait arlotan zehaztuz, e.b.: katalanaren ezaguera-aurrikuspena 1991rako, ulermena: %92,5, mintzamena: %67, irakurmena: %65,5 eta idazmena: %36,5 izanik, eta 1996rako berriz, ulermena: %93-95, mintzamena: %70, irakurmena: %70 eta idazmena: %43.

Marko horretan eramango den hizkuntz politikak (beti Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren ildoari jarraituz) hiru etapa izango ditu. Honela dio:

Etapa preliminar (1990-91):

«Configuració d'un Pla General de Normalització Lingüística amb la máxima participació dels sectors socials implicats i amb la sensibilització de la societat en general...

Primera etapa (1992-96):

«Suposa la consecució d'uns nivells de conoixements (abans descrits) que permetin la generalització de l'us del catalá en les relacions amb el públic per part de qualsevol tipus d'organisme (respecte total de l'opció lingüística dels ciutadans).

Al final d'aquesta etapa, les necessitats d'estandardització de la llengua en tots els plans (fonetic, grafic, gramatical, lexic) s'han d'haver result.

Segona etapa (1997-2.001):

«Representa la culminació general dels objetius abans exposats. Els conoixements de catalá se situarían per sobre del 75% (...). Aix ╒ permetria que el catalá fos usaten totes les funcions públiques institucionalitzades com a llengua habitual...

Segons aquestes previsions. La década inicial del segle vinent representaria la consolidació de la normalitat de la llengua catalana...»

«Bizitzaren arlo guztiak betetzen dituzten erakundeen hizkuntz jokaeren aldaketa mailakatu baten ondorioz izango dela defendatzen duen hipotesia dago muinean»

Bigarren puntuak hizkuntz politikaren interbentzioen printzipioez dihardu: hizkuntz jokaera indibidualen aldaketa herritar guztiei zuzenduriko sentsibilizazio-ekintzen ondorioz edo bapatean ez dela gertatuko defendatzen da, horren ordez, publiko nahiz pribatu izanik, bizitzaren arlo guztiak betetzen dituzten erakundeen hizkuntz jokaeren aldaketa mailakatu baten ondorioz izango dela defendatzen duen hipotesia dago muinean.

Hirugarren puntuak iharduera-esparru edo sektoreak sailkatzen ditu:

1.- Administrazioa, 2.- Hezkuntza, 3.- Komunikabideak eta kultur industriak, 4.- Sozio-ekonomia, 5.-

Elkarteak. Segidan azpisektoreak ere definitzen ditu (3.1.- Kultur industriak, 3.2.- Prentsa idatzia, 3.3.- Irratia...). Era berean, arlo bakoitzeko helburuak ere definitzen ditu.

Laugarren puntuan «Centre de Normalització lingüística»ren zerbitzu iraunkor eta programa sektorialen bereizketa egiten du.

Bostgarren puntuan programa sektorialak burutzeko metodologia zehazten du. Urteroko planetan hiru motatako iharduerak izango dira:

a) Aginduzko iharduerak: Hizkuntz politika orokorreko helburuak gauzatzearren guztientzat amakomunak izango diren iharduerak (e.b., 1990erako: udal-administrazioaren azpisektorea, sektore sozio-ekonomikoa eta kirol-azpisektorea). Iharduera hauek plan osoaren aurrekontuen eta bitarteko guztien %50 eskatuko dute.

«Bada dinamika honetan ere argi zaintzen den atal bat: hizkuntz normalizaziorako teknikarien formazioa»

b) Iharduera Orientatiboak: jorratzeko interesanteak diren alorrak, baina halabeharrezkotasunik ez dutenak dira (e.b., 1991rako: justizi administrazioaren azpisektorea, ikastetxeak...). Iharduera hauek plan osoaren aurrekontuen eta bitarteko guztien %25 eskatuko dute.

c) Udal Ekimeneko iharduerak: CNL bakoitzak erabakiko du zein arlo zehatz jorratzea den egokia udalerri bakoitzean. Iharduera hauek ere, plan osoaren aurrekontuen eta bitarteko guztien %25 suposatuko dute.

Seigarren puntuan plan hauek burutzeko prozedura azaltzen da, zenbait adibide eskainiz.

Zazpigarren eta azken puntuan jarraipen eta ebaluazio-sistema orokorrak zehaztu dira. Consorci-ak bai zerbitzu iraunkorren, bai programa sektorialen eta baita urteko proiektuaren ebaluazioa ere egiten du.

Bada dinamika honetan ere argi zaintzen den atal bat: hizkuntz normalizaziorako teknikarien formazioa. Horretarako Consorci-ak programa bat prestatzen du, eta jadanik, administrazioak berak soilik edo unibertsitatearekin elkarlanean 3-4 «Curs de dinamització», «Master de Lingüística Aplicada» eta burutu berri diren «I.

Trobada de Serveis Lingüístics» antolatu ditu.

Azalpen honen bidez, alor honetan Katalunian egiten ari direna argitu nahi izan dut, eta batez ere, Administrazioak H.N. planteatzeko garaian, Udal-Administrazioa eta Administrazio Orokorra uztartuz, udal-mailako hizkuntz politikak eduki behar duen lekua azpimarratzen saiatu naiz.

Euskal Herriko egoeraz zenbait ohar

Euskal Herrian udal-mailako hizkuntz politika zertan den, eta 1978az geroztik, Kataluniakoarekin alderatuz, izandako desberdintasunak ezagutzeko, artikulu hau luzeegi doanez, Kike Amonarrizek, Tolosako Euskara-Zerbitzuburu ohiak, JAKIN 54ean argitaratutako «Euskara eta Udal Administrazioa: Hausnarketarako eritziak» artikulu argigarria irakur dezazuen gomendioa luzatzen dizuet.

Udaletako Euskara-Teknikariok berriz, euskara-Zerbitzuak (edo itzultzaile plazak...) sortuz joan ziren une beretik (ez Katalunian bezala Gobernuak Udalekin izandako elkarrizketen ondorioz, zenbait euskaltzale eta elkarte edo talderen eraginez baizik) koordinazioa sortu nahian ibili gara. Horren poderioz sortu da U.E.T.S. (Udal Euskara Teknikarien Sarea). Oraingoz, inolako izaera juridiko zein legitimitate politikorik ez duen 'bilgunea'. Bertan Euskara-Arduradunok zenbait kanpaina amankomun eta erizpide-trukaketa egitera mugatzen gara, baina beti ere gure kabuz eta H.P.I.N.ren koordinazio zein erizpide-bateratzerik gabe (hizkuntz eskakizunen programan izan ezik).

Gure arteko ekimenez gain, badira bi legealdi zenbait Udalek H.P.I.N.ri eraketa eta planifikazio-beharra eskatu zizkiotela, eta aurreko legealdiaren hasieran ere U.E.T.S-.etik antzeko eskaera luzatu zitzaion H.P.I.N.ri. Horretaz gain, ia bi urte badira *EUDEL*-i (Euskadiko Udalen Elkarteari) ere gure iharduera koordinatzeko azpiegitura--eskaera egin geniola, baina itxaropen-falta susmatzen dugu gure artean bide horretatik ere lor daitekeenari buruz.

«Gure arteko ekimenez gain, badira bi legealdi zenbait Udalek H.P.I.N.ri eraketa eta planifikazio-beharra eskatu zizkiotela, eta aurreko legealdiaren hasieran ere U.E.T.S.etik antzeko eskaera luzatu zitzaion H.P.I.N.ri.»



OHARRA: Eskema hau H.A.E.E. -k (IVAP) 1.990eko martxoan antolaturiko " E.H. Administrazioen hizkuntza-eredua" ihardunaldian Carles Duarte i Montserrat, Kataluniako Generalitateko Hizkuntza politikarako Zuzendaritza Nagusiko partaideak aurkezturiko txostenetik eratu da.

(1) Kontseilaritza honetako hizkuntz zerbitzuak izan eta funtzio desberdinak badituzte ere, "Katalan Zerbitzu" modura izendatu ditut, laburrago gera dadin.

Egoera hau izanik, udal-mailan egiten diren plangintzak Kataluniakoengandik oso urrun aurkitzen dire (ez edukinetan soilik, baita metodologian, sistematizazioan, koordianzioan... batez ere). Teknikarion formazioa ere gure esku dago soilik, norberak ahal duena egin eta teknikari desberdinon esperientzi trukera mugatzen delarik.

«Egoera hau izanik, udalmailan egiten diren plangintzak Kataluniakoengandik oso urrun aurkitzen dira (ez edukinetan soilik, baita metodologian, sistematizazioan, koordianzioan... batez ere)»

Erabilitako bibliografia:

(1) Toni Mollá. Llengua i Dret aldizkarian 12. zenbakiko «Sobre polítca lingüística municipal» artikulua.

(2) Kike Amonarriz. Jakin aldizkariaren 54. zenbakiko «Euskara Udal Administrazioan: Hausnarketarako eritziak» artikulua.

(3) Josep Missé Ferran. Eibarko Udalak antolaturiko Hizkuntza/Hezkuntza ihardunaldietako «Diferents experiencias en el procés de normalització lingüística de Catalunya. L'aportació dels ajuntaments».

- Albert Bastardas i Boada. Llengua i Dret aldizkariaren 9. zenbakiko «La planificació lingüística en els casos flamenc, basc i català: una nota comparativa» artikulua.

- Xosé González Martínez. Llengua i Dret aldizkariaren 8. zenbakiko «O fomento do uso público da lingua desde a administració local».

Iñaki Arruti

Lasarteko Udaletxeko Euskara Teknikaria